



**UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2015eko OTSAILAREN 6ko
BILERAREN AKTA**

BERTARATUTAKOAK:

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea,
lehendakaria
Itziar Alkorta andrea,
lehendakariordea
Juan Andrés Legarreta jauna,
Agentziaren zuzendaria
Iñaki Goirizelaia jauna, UPV/EHUko
errektorea
Vicente Atxa jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea
Óscar Altuzarra jauna
Aratz Castro jauna
María Paz Espinosa andrea
Carmen González Murua andrea
Guy Haug jauna
Gregorio Monreal jauna

BERTARATUTAKO BESTE
BATZUK:

José Manuel Valle jauna

EZIN ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:

José María Guibert jauna,
Deustuko Unibertsitateko
errektorea
Esther Jiménez-Salinas andrea
Ana Martínez andrea

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzaren A aretoan (Kale Nagusia 85), 2015eko otsailaren 6ko 16:00etan bildu da UNIBASQ Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseilua, Cristina Uriarte andrea buru dela. Alboan adierazitako jaun-andreak bertaratu dira, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2014ko abenduaren 22ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Lehendakariaren txostena.
3. Zuzendariaren txostena.
4. Kudeaketa-plana bete dela adierazten duen memoria, auditoriaren aurreko behin-behineko likidazioa eta 14-12-31ko inbentarioa.
5. Nazioarteko topaketa Canfrancen ACPUarekin elkarlanean.
6. Zuzendari berriaren izendapena.
7. Galde-eskeak.

1. PUNTUA. 2014-12-22ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea, eta, hala badagokio, onartzea.

Erabaki da aurreko bilkuraren akta onartu gabe uztea Aratz Castro jaunak egindako iruzkina eta Kontseiluak emandako erantzuna erantsi arte; izan ere, akats bat dela medio ez ziren aipatu aurkeztutako aktaren zirriborroan. Hurrengo bilkuran onartu beharko da 2014-12-22ko akta aldaketa horrekin.

2. PUNTUA. Lehendakariaren txostena.

Cristina andreak otsailaren 2ko 43/2015 Errege Dekretuaren –1393/2007 Errege Dekretua eta 99/2011 Errege Dekretua aldatzen dituenaren– berri eman dio Kontseiluari titulazioen iraupenari –Ministerioak eta Espainiako Unibertsitateen Errektoreen Konferentziaren bileran onartutakoari– buruz. Bilera hartan errektoreek adierazi zuten graduak aldatzen dituen araudi berriaren aurka daudela.

Iñaki Goirizelaiak Espainiako Unibertsitateen Errektoreen Konferentziaren bileraren berri eman du.

3. PUNTUA. Zuzendari jaunaren txostena.

Juan Andrés Legarreta jaunak Agentziaren jarduera garatzeko garrantzitsuak diren zenbait gairen berri eman du.

4. PUNTUA. Kudeaketa-plana bete dela adierazten duen memoria, auditoriaren aurreko behin-behineko likidazioa eta 14-12-31ko inbentarioa.

Juan Andrés Legarreta jaunak Urteko Kudeaketa Plana Betetzeari buruzko Txostena aurkeztu du. Txostena 2013-2016 aldiko Plan Estrategikoa kontuan hartuta idatzi da eta egindako jarduera –ardatzen eta helburuen arabera sailkatua– aurki daiteke bertan. Kudeaketaren lorpen nagusiak ENQAn eta EQARen onartzea eta onartu ahal izateko aurretiko betekizunak betetzea izan dira, onarpena baita Agentziaren Plan Estrategikoaren ardatz nagusia. Plan Estrategikoaren helburuen % 85 bete da.

Kontseilua ados dago Urteko Kudeaketa Plana Betetzearen inguruan aurkeztutako Memoriarekin.

Bigarrenik, Juan Andrés Legarreta jaunak 2014ko behin-behineko likidazioa – auditoriaren aurretik egin dena– eta 2014ko abenduaren 31ko inbentarioa aurkeztu ditu. Auditoria egin ondoren, kontuen formulazioa eta auditoria-txostenaren aurrerapena ekarriko dira Kontseilura. Kontseikukideek sinatu egin beharko dituzte formulazio eta aurrerapen horiek. Zuzendariak zehaztu du gastuak asko murriztu direla, eta horri esker gutxieneko defizitarekin itxi ahal izan dela (9.000 euro baino gutxiago), eta horrek ekarri duela aurrekontuaren desbideratzea % 1etik beherakoa izatea.

Kontseilua ados dago inbentarioarekin eta aurkeztutako behin-behineko likidazioarekin; beraz, auditoria egiten hasi ahal izango da.

Epeak kontuan hartzen baditugu, orain 2015erako Kudeaketa Plana egin beharko litzateke. Baina Plan hori egin aurretik, komenigarria izango litzateke dagozkion aldaketak Plan Estrategikoan sartzea; horregatik, atzeratu egin da Kontseiluak horiek kontuan hartzea harik eta Plan Estrategikoa aldatu arte.

Aratz Castro jaunak 2015eko Kudeaketa Planaren, 2013-2016 aldiko Plan Estrategikoaren eta 2015-2018 aldiko Kontratu Programaren epeen gaia sartu du.

Cristina Uriarte andreak argitu du Plan horiek behar den denboran egin behar direla eta Plan Estrategikoak –beste bi urte gehiagotan (2015ean eta 2016an) indarrean egongo denak, 2015eko Kudeaketa Planak (urteko iraupena du) eta kontratu-programak (4 urteko indarraldia izango du) koherenteak izan behar dutela.

5. PUNTUA. Nazioarteko topaketa Canfrancen ACPUArekin elkarlanean.

ACPUArekin elkarlanean Canfrancen egindako Nazioarteko Topaketaren berri eman du Juan Andrés Legarreta jaunak.

Topaketa onartzea eskatu da; izan ere, orain arte garatzen zen sinposioaren ordeztu aurretik egongo den jardueraren da.

Kontseiluak onartu eman du topaketa prestatzea.

6. PUNTUA. Zuzendari berriaren izendapena.

Cristina Uriarte andreak Agentziaren zuzendaritza aldatzeko proposamena egin du. Eskualdatutako eskumen berriak direla medio, Agentzia trantsizio-unean dago. Egungo zuzendariaren figurak lortu du Agentziarako arrakasta handi hori,

eta funtzionamenduari eta kudeaketari dagokionez, emaitza bikainak lortu ditu; horregatik, orain etapa berri bati ekin diezaikegu izan daitezkeen baldintza hoberenetan eta erronka berriak proposa ditzakegu. Egungo zuzendariak konpromisoa hartu zuen Agentziak ziurtagiria lortzeko helburuarekin, eta helburu hori lortu ondoren, uste du etapa-amaiera egokia dela. Cristina Uriarte andreak zorionik beroenak eta eskerrak eman dizkio Juan Andrés Legarreta jaunari lortutakoagatik.

Kontseilari guztiek ere eman dizkiote zorionak eta eskerrak.

Cristina Uriarte andreak uste du Agentziaren autonomia handiena lortu ondoren, ilusioz betetako beste etapa bati eman behar zaiola hasiera, nazioartekotzearen erronkari aurre egin beharko zaion etapari, hain zuzen ere. Horretarako, ezinbestekoa da 2015-2018 aldiko kontratu-programa egitea, 2013-2016 aldiko Plan Estrategikoa aldatzea eta 2015. urteko Kudeaketa Plana egitea.

Erronka horiei eta Agentziaren beste erronka batzuei eta Agentziaren eskakizunei heltzeko, zuzendaritza berriak lanbide-ibilbide oso finkatua duen pertsona baten profila izan behar du. Cristina Uriarte andreak Eva Ferreira andrea aurkeztu du izangai gisa, eta Ferreira andrearen curriculum vitae ere aurkeztu du Kontseiluak kontuan har dezan. Eva Ferreira andrearen irakaskuntza- eta ikerketa-ibilbidea bikaina da. Era berean, nabarmendu du erantzukizuna izan duela UPV/EHUko errektoreorde-lanetan eta idazkari nagusiaren lanetan.

Aho batez onartu da Eva Ferreira andrea Unibasqen zuzendaritza-kargua betetzeko izendatzeko proposamena.

7. PUNTUA. Galde-eskeak

Kontseiluaren hurrengo bilera egiteko behin-behineko data martxoaren 27a (ostirala) izatea ezarri da.

Cristina Uriarte andreak eskerrak eman dizkie kontseilariei bertaratzeagatik eta eskaini duten laguntzarengatik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilkura amaitutzat eman da 18:00etan.